

## Tokiko ekonomia

Ekonomia berriro Euskal Herrian egin eta tokiratu nahi dugu. Horretarako, bertako ekoizle, hornitzaile eta saltokiei lehentasuna emanez.

Gure lurraldeetako ekoizle, hornitzaile, saltoki, enpresa eta elkarteen arteko elkartasuna saretuz, aberastasuna lurraldean geratzea bermatuko dugu.

Ez dugu onartzen sare handietako enpresa banatzailerik, garatzen duten ereduagatik; izan ere, eredu horrek enplegua, harreman sozialak eta baliabdieak suntsitzen ditu.

## Euskara

Jarduera ekonomikoan eta sozialean euskara ardatzera ekarri, hizkuntza eskubideak errespetatu eta egunerokotasuna bizigarriagoa egingo dugu. Euskararen paisaia eta erabilera zabalduz, harreman sozial eta ekonomikoetarako ezinbesteko tresna izateko bidea egingo dugu.

## Ingurumena

Jokabide ekologistarekin eta ekonomia zirkularraren bidez, uraren eta energiaren kontsumo jasangarriagoa eta hondakinen murrizketa eta kudeaketa egokiagoa bultzatuko ditugu.

Ingurumena zaintzen duen lurrari lotutako nekazaritzaren alde egingo dugu.

Ez ditugu onartzen ingurumenean kalte handiak eragiten dituzten enpresak, ez baldin badute kalte horiek konpontzeko gogorik erakusten.

Ez dugu onartzen laborantza industrialaren eredua edo lurrari lotua ez zaiona.

## Justizia soziala

Gizarte orekatua, kohesionatua eta justua helburu duen eraldaketa sozialaren alde lan egingo dugu; horretarako, zaintzeki ikuspegi feministaz gure bizitzetan duten garrantzia aintzat hartuz eta modu justuan antolatuz.

Gizarte berdinzale eta inklusiboago baten ikuspegiarekin, gure lurraldeetan bizi garen pertsona guztion bizitzaren alde egingo dugu, edozein dela ere jatorria, kultura, sinismena edo bizimodua, diskriminazioei aurre eginez, inor bazterrean utzi gabe, parekidetasunaren eta sexu askatasunaren alde eginez.